

[b]


BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

526. zkia.

XIII. urtea

2005eko apirilaren 22a



Txirrindulari afizionatu profesionalenak

[BERBETAN] ALBERTO ORTUETA

• [GAZTAROA] SOTOKO HOTSAK



ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2005/06 IKASTURTEA

Elgoibarko Institutua

Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbh.net

www.elgoibarbh.net



- ✓ Azken 25 urteetan batxilerra 3000 ikasle inguruk gurekin gainditu dute.
- ✓ Azken 10 urteetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.
- ✓ Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra inguruko gazteak ezagutzeko eta harreman berriak egiteko.
- ✓ Unibertsitaterako zeln goi mailako hezkuntz ziklo formatiboetarako prestakuntza.
- ✓ Batxilerretako ibilbide guztiak garatzeko norberaren interesen arabera ikasbidea eratzuz. (Zientifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)

BATXILERREKO AURREMATRIKULA apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

ZIKLOETAKO AURREMATRIKULA ekainaren 1etik 8ra

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.

LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK

2005-2006 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:

BATXILERGOAK [A eta D]

**GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKOAK**

Etengabeko Jarduna

Badugu ikasteko leku bat zuretzat!

www.lasalle.es/eibarlasalle

DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara - APIRILAREN 26tik MAIATZAREN 6ra



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

XVIII edo XIX. mendeen aurretik, juduek ez zuten abizenik erabiltzen: izena soilik. Gero, ordea, abizenak ohiko bihurtu ziren Europan, eta juduei ere ohitura hori jarraitzea agindu zieten. Hala, batzuek aitaren izena hartu zuten abizentzat; eta ogibideen, koloreen, tokien izenak beste batzuek. Baina zenbait tokitan, ofizialak eroskerian erori ziren, eta dirua eskatu zieten juduei abizen ederren truke. Asko ordaindu zutenek Greenberg (mendi berdea) edo Silberstein (zilar harria) bezalako abizen ponpoxoak jaso zituzten, baina dirurik ez zutenek Fresser (tripontzia) edo Eselkopf (tximino burua) moduko deiturak jaso zituzten. Gainera, abizena da olibondoak baino bizi luzeagoa duen gauzetako bat, gizaldi eta gizaldietan Amen. *Tximino buruak tximino buru* txikiak egitera kondentatu zituzten, beraz, txirotasuna abizenari jositako zutenak. Bi menderen ondoren, *tximino buruek tximino buru* eta tripontziek tripontzi izaten jarraitu behar, beraz, ezinbestean.

Diruak egiten zuen izena, eta izenak, eskubidea. Eskubideak, gainerako guztia. Eta ondorio batera iritsi naiz: abizenaren bila joandako judu haien artean euskaldunen batek egon behar zuen. Dirurik ez ordaintzeaz gain, ofizialei dirua lapurtu zien euskaldun bat. Bestela ez dut ulertzen zergatik kendu nahi dizkiguten izena eta eskubidea eta gainerako guztia.

«Lehen diruak egiten zuen izena, eta izenak eskubidea»

UXUE

«Benetakoa denean izana, izenak ez dauka garrantzirik»

IMANOL

Banekien diruak eta, batez ere, diru faltak, pertsonaren izana markatu izan dutela askotan, baina ez nuen bela pentsatuko izena ere diruaren hatzaparretan egon izan denik. Guri, zorionez, izen-abizenak debalde eman zizkiguten gurasoek. Guretzat dira, gure ondorengoei ere debalde emateko kondizioarekin. Akordatzen naiz txikitari zelan ibiltzen ginen lagun artean zeinek abizen gehiago botako. Baziren zortzi abizen bata bestearen atzetik esaten zituztenak ere. Nik ezin izaten nuen laugarrenetik pasa. Baina ondo pentsatuta, zertarako zortzi abizen ikasi, batekin edo, altuenez, birekin nahikoa bazen? Guraso eta abizen euskaldunak genituen ia denok. Arraroa izaten zen gure artean abizen erdaldunak entzutea. Baina hauek aspaldiko kontuak dira Uxue. Euskal eta erdal abizenak elkarrekin ezkontzen hasi aurrekoak. Orain denak bizi dira nahastuta.

Izenik gabe ez dagoela eskubiderik diozu. Baliteke hala izatea. Baina batzuetan, aurreko domekan 150.000 euskaldunek egin zuten moduan, izena kendu edo debekatu arren, izaten da aukerarik norberaren izana eta eskubidea aldarrikatzeko. Izena moztu arren, izenak bizirik diravela erakusteko. Izan ere, izana benetakoa denean izenak ez dauka horrenbesteko garrantzirik.



LORE GUZTIAK MOZTU DITZAKETE
BAINA EZ DUTE LORTUKO UDABERRIA GELDIARAZTEA



Pablo Neruda

“Basarteruel”

Hasteko, lorak, eta gero egurra:

Denon ahotan dabilta azken asteotan udalak parkeetan eginiko berrikuntzei buruzko komentarioak, eta beste gai batzuetan kale egin badu ere, kasu honetan guztiz asmatu duela onartu behar dugu, herriaren dirua herrian gastatu nahi duela erakutsiz. Baina badago auzo bat, Asterixen komikietakoa bezalakoa, txikia, isolaturik bizi dena, non herriaren haize berria ez den igartzen: Basarte. Bertara heltzeko arriskuz beteriko bidea zeharkatu behar da: kotxeak eta kamioiak zentimetro gutxira pasatzen dira errepidetik gora; kotxe-silla batekin joanez gero eta etxera onik heltzen bagara, Aita Santua bezala, lurra musukatzen hasten gara eskerrak emanez. Gure farolek kotxe baten intermitenteak dirudite, egun bakoitietan bakarrik funtzionatzen dutelako. Oso itxura abandonatua du: barandilarik gabeko eskailerak, moztu gabeko belarra, farolak apurtuta, kotxeak abandonatuak, zakarrontzi bakar bat auzo guztian...Eta parkea...porlanezko zorua duen parke bakarra da, kolunpioak apurtuta, egurrezko jolasleku ziztrin bat, jaustear dagoena...Ez al ditugu zergak pagatzen? Auzo polit bat izan zitekeena leku zikin eta zaharkitua bihurtzen ari da, baina txarrena ez da

hori: egunen batean kotxeren batek familia bat harrapatuko du espaloirik ez duen pasabidean, edo haurren batek burua hautsiko du segurtasun baldintza minimoak betetzen ez dituen parkean, eta orduan berandu izango da.

Nire ustez, kasu honetan ez da legea errespetatzen ari, bere garaian konstruktoreari nahi zuena egiten laga zitzaiolako. Zerbait erreklamatu dugunean, mundu guztiak gorrarena egin du, baina gauzak gaizki egin baziren ere, haize berri batek konpondu ditzake. “Basarteruel” existitzen da!

A. I. - 72572629Q

EHNA

Ilgandean San Rokera joan nintzen botua emateko asmoz eta EHNA erakutsi orduko ezetz argia jaso nuen, ezin nuela Euskal Herriko Nortasun Agiriarekin bozkatu, alegia. Zergatik? Hauteskunde hauek ez al dira izan Eusko Legebiltzarrako? Atzera pauso ikaragarria iruditzen zait. Noiz arte jarraitu behar dugu horrela? Ze jende egoten da bozkatzeko mahaietan? Azkenean España jartzen duen DNla erakusi behar izan nuen botua emateko.

GOTZONE AIERDI

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasoñe Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorobategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmuyaga, Iban Urizar Kokea KE, Umuzuno, Unai Villena, Aloitx Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Geritu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK



- Emakume batek esan digunez, **igerilekua txiki gelditu da**: “Elgoibarko kiroldegiko igerilekua txiki gelditu da, eta gainera eguerdian itxita egoten da. Jende asko dago eguerdian bakarrik joateko aukera daukana, eta lehen irekitzen zuten. Gainera, arratsaldetan jende mordoia egoten da. Askotan kale bakoitzean lau lagun biltzen gara, eta honela ezinezkoa da igerian egitea. Arazoa apur bat arintzeko eguerdian kiroldegia irekitzea proposatuko nuke, ea honela arratsaldetan jende gutxiago joaten den”.



TXALOAK

- Musika zaletu batek **Sotoko Hotsak musika elektronikoko ekitaldia txalotu nahi du**: “Eguraldi benetan txarra egin zuen arren, Elgoibarko Kultur Etxeko sotora gerturatu nintzen joan zen ostiralean, eta benetan gustura egon nintzen. Oso ekitaldi ona eta polita izan zen, eta antolatzaileak txalotu nahi dituz”.



- Herritar batek esan digunez, **ez zaio batere ondo iruditzen goxoki makinetan tabakoa saltzea**: “Gaur egun adin txikikoei tabakoa saltzea debekaturik izanda, nolatan da posible txutxerik eta freskagarriak saltzen dituzten kaleko makinetan tabakoa ere salgai egotea? Tabakoaren kontsumoa jaisteko kanpaina ugari egiten den garaian, onartezina da horrelako makinetan tabakoa edonoren esku jartzea, ez dakit norena izango den erantzukizuna baina horren kontrako neurriak hartu beharko lirateke”.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- ☎ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☎ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☎ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



URRUZUNIOREN Luma

7 kaleetatik paseatzea gustatzen zait

50 urteko emakumeak erosketa konpulsiboek ekinez ahaztu nahi du bere senar ohia. Zortzi poltsa bete ditu dagoeneko, bi esku dauzka.

.....

Eskale bat hurreratu zaito bankuan egunkariarekin dagoen neskeri. 50 zentimo eskatu dizkio eta bizitza duinago bat.

....

Unamunoko yonkiak txirularen artean akordeoiaz Montiren Czardak jotzen dituen mutil poloniarra baino traketsagoak izanagatik, amama zimurtu batek 2 euro bota dizkie katilura. Dosi baterako iristen ez zaienez bokata bat erosi dute, zakurrarentzat.

Maite Uriarte



BAI ESAN?

M^a EUGENIA
GONZALEZ

LIBURUTEGIKO TEKNIKARIA

Bihar, apirilak 23, Liburuaren Eguna ospatzen denez, Elgoibarko Udal Liburutegiko teknikariei galderatxo batzuk egin dizkiegu, gure herriko liburutegia apur bat gehiago ezagutzeko asmoz.

• **Zenbat bazkide ditu Elgoibarko liburutegiak?**
2.920 bazkide ditugu guztira.

• **Emakumezkoek ala gizonezkoek irakurtzen dute gehiago?**

Umeen artean ez dago ezberdintasun handiegirik, baina helduen artean emakumezkoek irakurtzen dute gehiago.


• **Zein liburu da irakurriena?**

Irakurriena zein den ezin dugu jakin. "Los Pilares de la tierra" esaterako beti hartuta dago, baina 1300 orrialde dituenaz, ez da irakurriena. Azkenaldian dudarik gabe gehien eskatzen digutena "El código Da Vinci" da.

• **Euskal Herriko liburutegien sarean sartzeak eman al dizue abantailarik?**

Bai, irakurleak internet bidez ikusi dezake nahi duen liburua libre dagoen ala ez, edo noiz libratuko den. Lehen entregatzeko epeak kontrolatzea desmadre bat zen, eta orain askoz errazago egiten dugu. Aurrerantzean liburuak erreserbatzeko aukera ere izango da.

komikia



Kokae 014

[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Lasto-azaua»

Elizara bidian, kamiñoz etxetikan Mendarora guazela, ikusten genduzen basarixetakuak zela etortzen ziran. Orduan farolak izango ziran, baiña... Lasto-azaua eskuetan zukela etortzen ziran. Zuek gaztiok ez dezue ezagutu. Lehen, garixa egitten zanian, hemen igitaixakin ebaten zaben, eta fardo batzuk egitten zittuen garixakin. Ebagitta laga biharrian, lurrian paketiak edo txorta batzuk egin, lotu, eta gero horrekin metak egitten ziran. Gari-azaua esaten

jako horri. Goizeko 6:30etan, oindio illuna zala, ikusten genduan zela etortzen ziran basarritarrak, lasto-azaua su eman, eta antortxa moduan erabilliz. Joño! Potzuetakuak han duaz! Handik etortzeko, Izaraokuak izango dituk!

Mezetara ahal zanik eta dotorien juten giñan. Basarritarrak abarkekin etortzen ziran ixa kaleraño, eta eukitzen zittuen euren lekuak abarkak kendu, zapatak jantzi eta dotore jartzeko.



[GURE BERBAK]

Esamolde batzuk

Ariketa moduan jarriko dittut esamolde batzuk gaur. Amaittu egizuz goiko multzoko esamolde-hasierak beheko multzoko amaierekin. Ariketaren ebazpenak bihar badittuzu, azpizan. Azalpenak, hurrengo batian.

- 1- *Ha(ra) ze paria, ...*
- 2- *Haizia buruan ...*
- 3- *Hartzeko ...*
- 4- *Astarrak umia egitterako ...*
- 5- *Aterik adiña ...*
- 6- *Daguanian bon-bon, ...*
- 7- *Bakoitzak beria, ...*
- 8- *Bildur edarra ...*
- 9- *Lehengo lepotik ...*
- 10- *Ondo eta azkar, ...*

- ... ereñ egin bihar da. - A*
- ... amaittuko juek obra hori. - B*
- ... Jangoikuan legia. - C*
- ... karakola ta baria. - D*
- ... ez daguanian egon. - E*
- ... eta ibilli munduan. - F*
- ... obispuak abadiari! - G*
- ... maratilla dauka horrek. - H*
- ... usuak egan. - I*
- ... burua. - J*

Jesus Mari Makazaga

1-D, 2-F, 3-A, 4-B, 5-H, 6-E, 7-C, 8-G, 9-I, 10-L
EBAZPENAK:



Clínica Oftalmológica
RECALDE
 Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

**MIOPIA LASER - KATARATA
 EBAKUNTZAK**

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

ELGOIBARKO TXIRRINDULARIAK

AFIZIONATURIK PROFESIONALENAK

Aste honetako lau protagonistek "surko"an egiten dute lan egunero. Horrela deitzen diote Elgoibartik Debara dijoan errepide zatiari. Orduak eta orduak pasa dituzte bertan, asfaltoaren zulo, txintxor eta berezitasun guztiak ezagutzeraino. Begiak itxita egingo lukete bidea. Ibilbide ezberdinak jarraitu dituzten arren, laurak daude afizionatu mailan. Afizionatu zerbait esatearren, gero eta profesionalizatuagoa dagoen kirolaz berba egin baitigute Arkaitz Mujika, Iban Gonzalez, Iñigo Lariz eta Ramon Javier Garcia txirrindulariek.

Txirrindulari profesional izatera iristea da laukote elgoibartar honen ametsa. ez da lan batere erraza, baina ez dute esperantzarik galtzen, betiere hankak lurrean mantenduz. Afizionatu maila izugarri profesionalizatu dela azpimarratu digute, "txirrindulari asko dedikazio osoz aritzen dira, batez ere, aurrean dabilzanak. Kobratzen duten bakarrak dira, eta gehienez ere, gastuak berdintzeko". Euskadiko lasterketetan parte hartzen dute, baina bertara Estatuko eta atzerriko txirrindulariak datoz. "Probintzia bakoitzeko onenak elkartzen dira, oilar asko oilategi bererako!" diosku Ramonek. Taldeak ere oso globalizatuta ei daude, eta australiarrak, hegoamerikarrak, ingelesak, e.a. ikustea erraza da.

Normalean 3 edo 4 urtez probatzen da afizionatueta, baina Arkaitzen eta Ramon Javierren kasua


berezia da. Pelotoiko zaharrenetariok dira, baina hasiberrien ilusioa dutela ziurtatu digute. "Tailer batean lan egitea zer den ezagutu dugu eta gustatzen zaigunaz bizitzeko dauden aukera guztiak ahitu arte saiatuko gara".

25.000 KM. URTEAN

Entrenatu ere profesionalen tamainan egiten dute. "25.000 kilometro egiten ditugu urtean eta profesionalak 30.000 inguru. Azarotik urrira arte entrenatzen dugu, astean 5 edo 6 egunetan, ezinbestekoa da jarraikotasuna. Eguneko 24 orduak txirrindularitzara enfokaturik ditugu. 3 edo 4 orduz ibiltzen gara bizikletan, elikadura zaindu, eta atsedena ere garrantzitsua da" azaldu digu Iñigok. "Fisikoki nahiz psikologikoki gogorra da, baina gu ez gara bizikletan ibiltzen, txirrindulariak izateko entrenatu baizik, hor dago koska!" gaineratzen du Ramonek.

"Profesionalena baino lasterketa kopuru txikiagoa dugu, 40-50 urteko, eta 70 inguru beraiek. Bestalde, profesional mailako probetan taldeak eta taktikak pisu handiagoa dute. Eurak hasieran poliki joan daitezke eta bukaeran oso bizkor. Horregatik batezbesteko abiadurak gurean antzerakoak izan daitezke, baina beraien bukaerako abiadura mantentzea izugarri zaila da". Debara bidean profesional mailako txirrindulari askorekin topo egiten dute, "Peio Arreitunandia, Igor Astarloa, Aitor Hernandez, Aitor Galdos edo Patxi Ezenarro moduko profesionalekin entrenatzeko zortea dugu eta eskertzen da. Erlazio oso ona dugu". Kirolki saiatuenetakoa da txirrindularitza. Berdin dio hotza, euria edo elurra egiten badu, sasoi puntua lortu edo mantentzeko errepidera atera beharra baitago. Bertan ikusiko dituzue.





IBAN GONZALEZ

Lauretan gazteena (19 urte), Eibarko Debarrena taldean ari da Iban. Bigarren urtea du aurten. Lehen urtea maila berrira egokitzeko izan ei da. "Nahiko ondo aritu nintzen, baina igarri nuen aldaketa". Ikasketak bukatu berri ditu eta bizikletari dedikazio osoa eskaintzeko asmoa du aurten. "Piska bat


ibili eta norbere burua benetan probatu nahi izanez gero, horrela behar du izan. Lana eta txirindularitza uztartzea zaila da, 24 orduak eskaini behar zaizkio bizikletari". Diesel erako txirindulari erregularra da Santa Klarakoa. Igotzailea da eta portu luzeak eta gogorrak doazkio hobekien, "erritmo aldaketa gutxirekin igo behar direnak" zehaztu digu.



ARKAITZ MUJIKA

Azysa taldeko 27 urteko txirindularia. Jubenil mailatik afizionatuetara pasa ostean, urte eta erdi egin eta laga egin zuen. laz, urte sabatikoa hartu zuen lanean eta berriz saiatzea erabaki zuen. Gaixotasun moduan etorri zitzaion zorte txarrak ez zion bere balioa erakusten laga. Txirindulariengan ohikoa den

gaixotasunak, mononukleosis-ak, ahulduta eduki zuen urte guztian zehar. Bere buruari beste aukera bat ematea erabaki du aurten, azkena ziurrenik. Ibilbide luzeko igotzailea da Arkaitz. "Zenbat eta etapa luze eta gogorragoak hobe. Afizionatu gehienek baino adin gehiago izan eta zikloturismoan aritu izanak fondo gehiago izateko aukera eman dit".



RAMON JAVIER GARCIA

Arkaitzen talde berean (Azysa) dago Ramon Javier (26 urte) eta bien ibilbidea ere antzerakoa izan da.

Ramonek ere urte eta erdi egin zituen afizionatuetan, baina utzi egin zuen. Guztiz, gainera, bizikletan ibiltzea baztertu baitzuen bere bizitzatik. Gerora, behe mailetan berarekin aritzen ziren txirindulariak ikusi zituen telebistan, "Aranaga, Astarloza eta beste batzuekin parez pare ibiltzen nintzen ni, batzuetan irabazi ere

egin izan diet, eta orain profesionalak dira, pentsatzen nuen. Inbidia sanoaren eraginez itzuli nintzen bizikleta gainera. Laga izan ez banu noraino iritsiko nintzatekeen galdetzen nion nire buruari".

laz criterium bat irabazi zuen Binefarren (Lerida). Errodatzailea eta erlojuz kontrako probetan espezialista da. Indarra behar den lasterketetan moldatzen da hobekien, lasterketa luze eta gorabeheratsuetan.



IÑIGO LARIZ

Debarrena taldeko kidea. 21 urte. Ikasketak eta txirindularitza uztartzen dituen bakarra. Soin Hezkuntza ikasten du Gasteizen. Ikasketei lehentasuna emanez lau kurso gainditu ditu, baina litekeena da datorren urtean bizikletaren aldeko apustua egitea, "zerbait nahi duenak probatu beharra dauka, arre edo so!". Laugarren urtea du afizionatuetan eta garaipen eta postu apagarriak lortu ditu.

Duela bi urte, Lehendakari Txapelketako etapa bat irabazi eta laugarren postuan amaitu

zuen orokorrean. laz, 23 urtez azpiko Gipuzkoako Txapelketan 3. postuan sailkatu zen. Duela aste batzuk Balentziaga memoriale bukatzeaz ere arto dago. "Afizionatu mailako lasterketarik prestigiotsuena da. Estatu guztiko afizionaturik onenak biltzen dira eta ibilbidea oso gogorra da".

Aldapetan ondo moldatzen da eta talde txikietan iritsiz gero puntu asko ditu alde, bizkorra baita. "Mendate oso gogor eta luzeetan daukaten gorputzkerarekin sofritu egiten dut".

[PROTAGONISTAK]



Ibarra **Gurrutxaga**

Athletic Club Bilbaoko emakumezkoen taldeak 0-2 irabazi zion Bartzelonari, eta hirugarren aldiz jarraian eskuratu du Espainiako Superliga txapelketa. Norgehiagoka gogorra izan zen. Athletic-ek gol aukera garbiak izan zituen, baina 76. minuturarte ez zuten lehenengoa lortu. Eli Ibarra elgoibartarrak ireki zuen markagailua. Talde zuri gorriak merezimendu osoz eskuratu du Superliga: 26 partidutatik ez dute bat bera ere galdu, 20 irabazi eta sei berdindu dituzte. Eli Ibarraz gain, Itziar Gurrutxaga elgoibartarra ere talde honetan ari da. Zorionak!

[NOTIZIA]

Udalak Xixilion plaza estaliko du

Behin behineko azokatxoak Trenbide kalean izango da

Elgoibarko Udalak berehala emango die hasiera Sigma inguruak egokitzeko lanei. Obra hauei esker, udalerriak aparkaleku berri bat izango du, eta baita ekintza ezberdinak antolatzeko espazio balioanitz bat ere. Egitasmoa, Sigma ingurua estali eta berrantolatzeko dago prestatuta. Gaur egun 45 aparkaleku dauden inguruan ia ehun izatea da asmoa, gainera, arrapala bat eraikiko da, ingurura erraztasun handiagoz jotzeko, eta egonleku batzuk ere ipiniko dira.

Merkatutxoa Trenbide kalera

Maiatzaren 12tik aurrera Trenbide kalean kokatuko da ostegunetako merkatutxoa. Postu guztiek azalera berbera izango



dute eta, Sigmako obrek dirauten bitartean, Udalak ez die merkatariei zergarik kobratuko. Udalaren aurreikuspenen arabera, merkatutxoa datorren neguan itzuliko litzateke Sigmako Xixilion plazara.

[ZENBAKIA]

208

Zazpi auzo daude Elgoibarren eta guztien artean 208 baseri biltzen dituzte. Baseri kopuru handiena duen auzoa Sallobente da, 64 baserrireikin; gutxien, berriz, Altzolak ditu: 4 baseri. Aistia/San Migelen 49 baseri daude gaur egun; Idotorbe/San Pedron 33, Azkue/San Roken 26, Arriagan 18 eta Urruzunon, 14.

asteko [ARGAZKIA]



Aste honetan Txariduna ingurutik pasatu diren herritarrak ziur harrituta gelditu direla jabetzeko terrazan dagoen idiarekin. Ez, ez gaude San Ferminetan! Arturo Andrade eskultore elgoibartarrak egindako brontzezko idia da. Galiziako Allariz herrian antolatutako lehiaketa bat irabazi du Andradek idi honekin. Datorren astearen amaiera aldera eramango du idia Allarizera, eta herriko Plazan kokatuko dute, bertan ospatzen den Idiaren Egunaren omenez. Sari bat gehiago Andraderentzat. Zorionak!

Azokako merkatariek Udala gezurretan dabilela adierazi dute



[MOTZ-MOTZIAN]

Gida komertziala

BARREN astekariak 2005. urteko Elgoibar eta Mendaroko Gida Komertziala kaleratu berri du. Bertan Elgoibar eta Mendaroko komertzio, enpresa, taberna eta gainontzeko erakunde eta elkarte guztien telefonoak datoz, eta baita partikularrenak ere. Norbaitek bere burua 2005eko gida komertzialean falta dela sumatzen badu, deitu dezala BARRENera (943 74 41 12) eta datorren urtean sartuko dugu. Gida komertziala etxean jasoko duzue BARREN astekariarekin.



Debarrenarako enplegu zentroa

Debegesak Debarrenarako enplegu zentroa jarri du martxan, langabezian dauden pertsonen lana topatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezagutu eta aholkularitza eskaintzeko. Zentro honetan eguneroko eta asteburuko prentsa eta lan munduko informazioa eskuratu ahal dira, eta gainera ordenagailua erabiltzeko aukera ere izango da. Interesatuak 943 82 01 80 telefonora deitu dezakete.

Merkatu Plazako zozketa

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko lau txeke zozketatu dituzte hilabete honetan. Irabazleak Mila Astigarraga, Begoña Zubiaurre, Kontxi Iriondo eta Eguzkiñe Larrañaga izan dira. Saria erosketa txeketan jasoko dute.

Azokako merkatariek prentsaurrekoa eskaini zuten joan zen astean, eta bertan azaldu zutenez, Elgoibarko Udala gezurretan dabil: "Udalak mehatxuak jaso dituela adierazi du, eta gure aldetik ez da horrelakorik egon, eta sekula ez diogu inori bere postua Sigman jartzea galerazi". Bestalde, Sigmako aparkalekuaren arazoa desbideratzen saiatzen ari direla azaldu zuten: "Erakunde bezala arazoa konpontzen saiatu beharko litzateke, eta ez Euskal Herriko herri guztiak zaku berean sartu. Sigmako aparkalekua aspalditik ezagutzen dute, eta badakite ez dituela

beharrezko baldintzak betetzen". Honetaz gain, herri galdeketa kontuan ez hartzea 3.378 herritarrei aurpegira barre egitea zela esan zuten.

8 hilabete greban

Azokako merkatariek 8 hilabete daramatzate lanik egin gabe, eta egoera jasanezina da: "Udalak inorekin kontsultatu gabe hartutako erabakiak min handia egin digu, eta gure familietako egoera oso larria da". "Udalak kalean presioa nabari badu, elgoibartarrak erabaki honekin ados ez daudelako da baina errua beraiena bakarrik da".

EAJ-EA koalizioa nagusitu da baina 1.154 boto galdu ditu

	EAJ/EA	PSOE	EHAk	PP	IU/EB	Aralar	EH
2005	2.873	1.132	1.047	717	356	281	-
2001	4.027	940	-	1.233	255	-	1.034

Apirilaren 17an ospatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak, eta EAJ-EA koalizioaren beherakada izan da daturik garrantzitsuena, bai EAEn eta baita Elgoibarren ere. 2001ean 4.027 boto eskuratu zituen, eta aurten 2.873. Era berean, PP alderdiak ere behera egin du 518 boto galduz. PSE-EE alderdia izan da

bigarren indarra azken hauteskundeetan baino 192 boto gehiagorekin. EHAk bestalde, 1.047 boto lortu ditu, eta Aralar alderdia ere gogor sartu da 281 botorekin. Ezker Batuak ere, 101 gehiago lortu ditu. Partaidetzari dagokionean, elgoibartarren %72,54ak eman du botoa, 6.503 guztira.

Zein alderdik osatu beharko lukete Gasteizko Gobernua hurrengo legealdian?

FELIX LODOSO

Jubilatua

70 urte



“EHAK alderdiarekin, abertzaleekin. Hauek ez dira etsaiak. Etsaiak PP eta PSOE dira, horiekin ez dago ezer. Gure artean konpondu behar dugu hemengo egoera.”

JOSE LEON

Jubilatua

67 urte



“Politika gaian ez nago batere jantzita. Beste alderdiren baten beharra baldin badauka Ibarretzek erabaki dezala, baina denontzat hoberena izan dadila.”

IGON AIZPURUA

Atezaina

37 urte



“Abertzaleekin, dudarik gabe. Hori izango litzateke euskaldunontzako hoberena, hala ere, ez dut uste Ibarretzek erabaki hori hartuko duenik.”

MARI KARMEN AZKUE

Etxekoandrea

74 urte



“PP eta PSOEekin ez behintzat! Onena abertzaleekin elkartzea izango litzateke, EHAK, Aralar edo Ezker Batuarekin. Orain zer gertatuko den ikusi behar da.”

[BAI ala EZ?]

Udarari begira, zuk ere zaintzen al duzu itxura?

BAI %2

EZ %98

“Urte osoan zaindu behar izaten naiz gizentzeko joera daukat-eta, baina bai, udari begira, argi gorria pizten zait eta apur bat gehiago zaintzen naiz.”

“Urte osoan ahalegintzen naizen apur bat elikadura zaintzen eta kirola, berriz, urte osoan egitea gustatzen zait askoz hobeto sentitzen naiz-eta.”

Datorren asterako.... “Top-manta” %15 jaitsi da baina internet bidezko “pirateria” %50 igo.

Erosi al duzu inoiz disko piratarik? Eta jaitsi al duzu abestirik internet bidez?


Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean bi pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com



ALBERTO ORTUETA

AFMko ZUZENDARIA

«Meka proiektuarekin makina erremintaren hezkuntza integrala osatuko da»

Alberto Ortueta elgoibartarrak ibilbide zabal eta garrantzitsua erakutsi du beti enpresa munduan. Gaur egun, besteak beste, AFMko zuzendari nagusia da eta baita Gestio Eskolako eta Erreminta Makinaren museoko lehendakaria ere. Martxoan Korta saria jaso zuen bere lanaren errekonozimendu bezala eta gaur gure artera ekarri dugu erreminta makinaren orainaz eta etorkizunaz berba egiteko.

🚩 Zein egoera bizi du egun Euskal Herrian erreminta makinak?

Azkeneko hamarkadan eta 2002 urtera arte eraldaketa ikusgarria izan du. Munduko ekoizleen artean 9. gara eta Europar Batasuenan hirugarren, Frantzia edo Erresuma Batuen aurretik. 2002, 2003 eta 2004 urteek epealdi desberdin bat ireki dute. Aro zail batean gaude, beharbada ez da zenbakietan aurreko krisialdia bezain gogorra izan, baina kezka gariak diren faktoreak agertu dira.

🚩 Ze faktore?

Globalizaioak erreminta makinaren sektoreari ere eragin dio. Gure bezeroak munduko toki guztietarantz mugitzen ari dira (bereziki kostu baxuko herrialdeetara) eta guk ere hala egin beharko dugu. Oso esperientzia ona daukagu herrialde industrializatu garrantzitsuetan, baina orain, hauek ahaztu gabe, Txina eta ekialdeko herrialdeetan dauden aukera berriak ere aprobeztatu behar ditugu.

Bestalde, geroz eta espezializazio eta teknologi gehiago eskaini behar diogu bezeroari. Konpetentzia gogortu egin da, eskariak ez dira horren erraz etortzen, eta gure margenak txikitu behar izan ditugu. Dolarraren egoerak ere ez digu esportazioetan asko laguntzen.

🚩 Nola ikusten duzu etorkizuna?

Egoera zaila izanik, gure sektorearen ezaugarri historikoa aurrera jotzea izan da. Gaur egun, gure enpresak hobetu egokituak daude, pertsona ikasiak eta maila altukoak daude. Badirudi datorkigun etorkizuna desberdina dela, oso lehiakorra, baina zelai horretan mugitzen jakingo dugula sinetsita nago.

«Etorkizuna lehiakorra dator baina aurrera egingo dugu»

🚩 Zer aholkatzen diezu gaur egungo gazteei?

Hezkuntza profesionala duen jendea ezinbestekoa zaigu, baina baita ikasketa unibertsitariodun pertsonak ere, gestio edo kudeaketa eta maila teknikoan lidergoa hartuko dutenak. Ondo prestatutako jendea behar dugu.

🚩 IMH eta AFMren elkarlanak zer nolako emaitzak izan ditu?

IMH-k hezi dituen ikasle eta langile kopuru ia kontaezina da. Prozesu honetan beti eskutik joan gara, enpresen beharren analisia eginez, erakundeen aurrean planak aurkeztuz, eta erreminta makina sektoreari eskaintza orokor eta integrala emanaz. Bestalde, IMH-ren hezkuntza esperientzia, nazioarte mailan saltzen saiatu gara, AFM, IMH eta PROSCHOOLS-ek osatutako taldearen bitartez. Horren islada dira Txinan eta Malasian irekitako bi hezkuntza zentroak.

🚩 Institutuaren 50. urteurrena ospatzeko egin zen ekitaldian Meka proiektua aipatu zenuen.

MEKA proiektua, makinaren karrozeriaren inguruko hezkuntza proiektua da eta Elgoibarko Institutuan ari da garatzen. Makina formen diseinuan espezializatutako profesionalak heziko ditu: segurtasuna, aprobeztamendua, espazioaren funtzionalitatea, estetika... Makinaren kanpoko aldea kontutan harturik, makina erremintaren inguruko hezkuntza integralaren zirkulua itxi egiten da Elgoibarren.

ESTHER GURRUTXAGA

MENDAROKO ETORKIZUNA ERABAKITZEKO FOROA

Herritarrek nolako Mendaro nahi duten azaltzeko aukera izango dute

Nolakoa da hemendik 10 urtetara bizi nahi duzun Mendaro? Hauxe da datorren hilaren 28an ospatuko den foruan planteatuko den galdera. Helburua, Mendaroko lurzorua antolaketara zehaztea da, hau da, non egin etxebizitza berriak, non berdeguneak, non industri aktibitateak. Horretarako, mendarotar guztiei bertan partehartzeko deia egiten zaie.

Beharrak aurreikusi

Dagoeneko egina dago Mendarok egun bizi duen egoeraren azterketa

jasotzen duen dokumentua. Hurrengo pausua, gerora Mendaroko planeamendua izango denari forma ematen hastea da. Hasierako fase honetan, Mendarok hurrengo urteetan izango dituen beharrak aurreikusi behar dira, una iristen denean beharrari erantzun egokia emateko. Esaterako, kirol ekipamenduak zeintzuk eta nolakoak izan behar luketen jakin ez arren, leku egoki bat aurreikusi behar zaie.

Hitzordua, esan bezala, hilaren 28an arratsaldeko 20:00ak aldera, udaletxeko bilkura aretoan.



Haur Antzerkia Goñati frontoian

Mendaroko Udalak antolatuta, "Mamutxoren arazoa" antzerki emanaldia izango da datorren igandean, apirilaren 24an, Goñati frontoian. Mamutxo izeneko mamuak arazo bat dauka: ez du inor beldurtzen, eta gainera saiatzen denean barre egiten diote. Pipa iratxo Mamutxoren laguna egingo da, eta mundua zeharkatuko dute Mamutxoren arazoari irtenbidea topatzeko. Ikuskizun honek titiritero antzerkiaren ezaugarriak ditu: akrobazia, malabarrak, magia eta musika. Haurrentzako antzerki ikuskizuna izango da, eta arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

Federatzeko dirulaguntzak

Mendaroko udalak langabetu, jubilatua, ikasle eta familia ugari izen-emate federatiboak ordaintzeko dirulaguntzak emango ditu. Guztira 700 euro banatuko ditu, eta eskatzaile bakoitzak 70 euro jasoko ditu gehienez. Eskariak egiteko epea datorren maiatzaren 31n bukatuko da. Beharrezko baldintzak justifikatzeko dokumentazioa udaletxean aurkeztu behar da.

Ezkerreko alderdiek gora egin dute Mendaron ere

	EAJ/EA	EHAK	PSOE	PP	Aralar	IU/EB	EH
2005	542	164	124	66	46	33	-
2001	672	-	78	100	-	35	144

Apirilaren 17an ospatu ziren Hauteskunde Autonomikoak EAJ-EA koalizioak irabazi ditu Mendaron, baina 2001. urteko hauteskundeean baino 130 boto gutxiago lortu ditu. Ezkerreko alderdiek gora egin dute orokorrean.

EHAK izan da bigarren alderdirik bozkatuena 164 botorekin. PSE-EE alderdiak ere gora egin du 124 boto lortuz, eta Aralarrek 46 boto jaso ditu. PP alderdiak 34 boto galdu ditu, eta IU mantendu egin da.



Baserrietako bideen seinalizazioa

Eskualdeko beste zenbait herrialdetan egin den bezalaxe, baserrietarako bideak seinalizatuko dira Mendaron ere. Baserrietarako bide gurutzeez gain, baserri auzoetako sarreretan ere informazio kartelak jarriko dira. Proiektu honek 27.517 euroko aurrekontua izango du guztira. Debemen Elkartetik aurrekontu osoaren %50a jaso da, 13.758 euro, hain zuzen ere.





AITOR ETXEBERRIA Margolaria

«Eibarkoaren ostean, Madrilen egingo dut nire koadroen erakusketa»

Aitor Etxebarria mendaroarrak urte mordoia daramatza margotzen. Orain Deba Bailarako beste hainbat artistekin batera erakusketa bat antolatu du Eibarren, eta bien bitartean, Madrilgo areto batean jarriko duen erakusketa bat prestatzen ari da. Honetaz gain, margo ikastaroak ere ematen ditu Aitorrek. Presaka eta lanez gainezka harrapatu dugu bere lokalean.

• **Nonik sortu da Deba Bailarako erakusketa hau antolatzeko ideia?**

Urtero elkartzen gara Deba Bailarako 17 lagun afari bat egiteko. Pintura komertzialek kanpo gabiltzanak gara, eta beti esaten dugu erakusketa bat antolatu behar dugula. Aurtengoan animatu gara, eta Eibarren antolatu dugu.

• **Zer ikusi daiteke bertan?**

Gehienak margolariak gara, beraz, koadroak daude batez ere, baina badaude pare bat eskultura ere.

• **Zer margotzen duzu?**

Abstrakzioa eta irudimena nahasten ditut. Nire koadroetan agertzen diren elementuak benetakoak dira, beharbada ikusleak ez ditu koadroan ezagutzen, baina existitzen dira. Nire gustura manipulatzeko ditut abstrakzioa erabiliz.

• **Hainbeste urtean margotutako koadroekin zer egiten duzu?**

Nik niretzako margotzen dut. Erakusketa bat jartzen dudanean beti saltzen da koadroen bat. Enpresaren batek, edo diru asko eta etxe handia daukan norbaitek erosten du koadroen bat, baina formato handian saltzea zaila da.

• **Neurriaren arabera baloratzen al dira koadroak?**

Bai. Lehiaketetara koadro txikiak bidaltzen badira inork ez die kasurik egiten. Formato handian ikusten da benetan

margolaria nolakoa den. Koadroari prezioa ere tamainaren arabera jartzen zaio normalean, ezin da koadroa egiten pasatzen den denbora kobratu. Kasu batzutan ordu mordoia sartzen da.

• **Nola lortu duzu Madrilen erakusketa jartzea?**

Madrilera joan nintzen egun batean irratian arte areto berri bat ireki zutela entzun nuen. Nire katalogoa utzi nuen eta deitu egin didate. Lan handia dauka erakusketa bat antolatzeak.

• **Zenbat denbora ematen duzu Elgoibarko lokalean?**

Asko. Hasiera batean hobby bat zen margotzea, gaur egun obsesio bihurtu da.

• **Ordenagailuz eginiko lanak artelanak al dira?**

Beste erreminta bat da eta garaian garaikoa errespetatu behar da. Ordenagailuak ez du bakarrik egiten lana. Oraindik hotza da, eta jende askok ez du onartzen baina denborarekin aldatuz joango da.

• **Bizi al daiteke margolari izatek?**

Baietz uste dut, baina horretarako jendeak nahi duena margotu behar da. Nire gustuko koadroak jendeari ere gustatzea lortzen ari naiz. Aukeratu egin behar da eta nik bigarrena hautatu dut. Nik margotzen segitzeko lanean jarraitu behar dut, gastu handia dauka.



«Abstrakzioa
eta irudimena
nahasten
ditut nire
koadroetan»



GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Iban Urizar

"ELGOIBARKO KULTUR ETXeko SOTOKO HOTSak" IZENBURUPEAN 5 KONTZERTUKO ZIKLOA ANTOLATU DU SINUOSEK. JOAN ZEN BARIKAKUAN HASI ZITUEN EMANALDIak DJ AMSIA AZKOITIARRAK ETA HURRENGO SAIOA APirilAREN 29AN IZANGO DA GAIZKA SARASOLA ETA IÑIGO TELLETXEA NAFARREN ESKUTIK. EKAINERA ARTE LUZATUKO DIRA SAIOAK. IBAN URIZAR, SINUOSEKO KIDEAK, AZALDU DIZKIGU KONTZERTU HAUEI NONDIK NORAKOAK.

"Jendeak ez du gauza berriak probatzeko kuriositaterik"

Elektronika eta musika ausarta uztartzen dituen kontzertu sorta antolatatu du Sinuosek.

Bai, halaxe da. Jendeari elektronika hitza entzutean, zuzenean, diskoteka eta pistetara zuzendutako musika datorkio burura. Irudi eta uste horretatik pixka bat aldentzeko, musika elektronikoa eta beste musika mota bat, ausartagoa, bilduko zituen programazioa antolatzea otu zitzaigun. Nolabait esatearren, paisaia elektronikoak eta giroak sortzen dituzten artistak dira, eserita entzuteko modukoak.

Zerk batzen edo lotzen ditu taldeak?

Bata bestearengandik oso ezberdinak diren bost proposamen izanagatik, bost artistak euskaldunak dira, ohiko eskenatik aldentzen diren proposamenak aurkezten dituzte eta ez dira oso ezagunak. Joan zen ostiralean 35 lagun izan ziren DJ Amsiaren kontzertuan eta gainontzeko kontzertuetarako ere oraintxe sinatuko nuke kopuru berdina.

Elgoibartarrek erantzuten al dute?

Egia esan behar bada horrelako gauzak Elgoibarren antolatzeak

izugarriko beldurra ematen du. Inork gutxik antolatzen du ezer musikaren inguruan eta proposamen ezberdinak badira probatzeko beldurtuta edo nagituta ageri da jendea. Bandaren kontzertuak jendez gainezka egoten dira, baina horrelakoetarako arazorik handiena kuriositaterik eza dela uste dut. Jendeak ez du gauza berriak probatzeko kuriositaterik. Berdin dio publizitatea egin edo behar bezala zabaldu eta promozionatu bada ere, eta zer pentsatua ematen du horrek.

Zergatik Kultur Etxeko sotoan?

Sotoa gutxi aprobetxatzen den espazioa iruditu zitzaigun. Dirudienez, jendeak nahiago izaten du Kultur Etxeko erakusketa gela libratu arte itxaron sotoa erabili baino. Sinuoseraren kontzertuak bertan eskaintzen hasi ginenean prestazio oso onak zeuzkala konturatu ginen. Formato txikiko kontzertuak dira, baina ez dira taberna batetarako egokiak, soinu baxuak erabiltzen baitituzte zenbaitetan.

Zuzenekoek ez al dute oso hotz gertatzeko arriskurik?

Baliteke. Artista mordoa ikusi ditut eszenatokian ordenagailu baten laguntza

BARREN



bakarrak. Rock formatoa bistarako erakargarriagoa da. Erronka bat dago hor eta diziplina anitzeko ikuskizunak eskaintzean egon liteke etorkizuna. Bisualki kontzertu hotzegiak izan ez daitezten saiatu gara.

Proposamen berritzaileak al dira?

Ez, proposamen askok 60ko hamarkadan dute jatorria. Jadanik egiten ziren gaur egun abangoardiatzat hartzen diren musika estiloak. Musika egiterako orduan aldatu dena eskura dugun teknologia izan da. Orain denok lortu dezakegu ordenagailu bat eta musika sortzeko aukera zabaldu egin da.

"Mengele" taldearekin parte hartuko duzu zuk?

Bai, jazz laukote bat gara eta dugun arazorik nagusia, elkarrengandik hurrin bizi garala da. Bilbotar bat, bi beratar eta elgoibartar bat gara. Lan dinamika ezberdin bat hartu behar izan dugu eta inprobisazioaren bidetik jo dugu. Ez dugu entsaiatzen eta ez dugu piezarik, kontzertuan bertan Inprobisazio askea deritzona egiten dugu.

Zertan oinarritzen da Inprobisazio askea?

Musikari moduan jorratutako gaitasun guztia beste musikari batzuekin elkartzean ateratzean datza. Elkarrizketa moduko bat sortzen da. Oso interesgarria da, bai jendearentzat, sortzen ari garen piezaren lekukoak baitira, eta baita guretzat ere. Norberaren diskurtsoak besteekin espazio berean bat egiten saiatu behar da eta horretarako ezinbestekoa besteenganako errespetua da. Emaizta, noski, geuk ere ez dakigu. Musikari nomadentzat oso baliagarria da eta eskola ezin hobea edozein musikarientzat. Edozein tokitara joan zintezke eta hango musikarekin beldurrik gabe jo. Nortasuna ematen du, edozein musikarientzat garrantzitsuen.

2005-4-22

Sotoko hotsak

GAIZKA SARASOLA eta **IÑIGO TELLETXEA**
Apirilak 29



Euskal folklorea eta elektroakustika bat eginik. Mendiko soinuak, naturaren hotsak, txistua, atabala... Gaizka Sarasola lesakarrak Xabier Erkiziarekin batera atera du diska. Berako Iñigo Telletxea musikariarekin aurkeztuko du atera berri duen "Ixuriak" diska.

MENGELE QUARTET

Maiatzak 13

Bera eta Elgoibar artean sortutako inprobisazio laukotea. "Onddo", "Gutariko Bat" eta "Café Teatro"ko musikariak. Inprobisazio askea da taldearen funtsa, bakarka garatu dituzten unibertsuak bateratze-ko sortua. Inpro askea, free jazz, elektronika esperimental... hainbat musika bateratzen dituzte.

TZESNE VS PARALUX

Maiatzak 27

Tzesne Oretetako musikariak, elektronika iluna, field recording-ak edo landa grabaketak erabiltzen ditu bere paisai asko deskribatzeko. "Gutural" talde mitikoaren sortzaile eta buru. Inma Paralux bideo egile eta herrikidearen laguntza izango du.

Do

Ekainak 17



Joseba Irazoki Berako musikaria, pop esperimentalaren ertzean dabilen artista, Fennesz edo Mitchell Akiyama musikariek egiten duten moduan, kitarra erabiltzen du musika egiteko. "Onddo" taldeko burua izateaz gain proiektu desberdinak ditu martxan.

* Kontzertu guztiak 22:30ean Kultur Etxeko Sotoan

ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA TANBORRADAKO ARDURADUNA

«Polita izango zen Tanborradak *Beti Elgoibar* jo eta herritarrek letra abestea!»



Maiatzaren 22an izango dira Trinitate jaiak. Ohi denez, bezperan, Tanborrada aterako da. Andoitz da azken 5 urteotan Tanborradaren antolatzailea eta, esan digunez, entsaioak hastear daude eta ahalik eta jenderik gehiena elkartu nahi dute.

🚶 **Maiatzaren 21ean izango da aurten Tanborrada. Nola doaz pres-taketa-lanak?**

Momentuz 50 lagun inguruk eman du izena. Kopuru ona da baina gehiago izango bagina hobe. Askoz dotoreago geratzen da Tanborrada jende askorekin. Iaz 70 pertsona elkartu ginen eta primeran geratu zen.

🚶 **Batez beste, ze adineko jendeak hartzen du parte?**

20tik 30 urtera bitartean. Media nahiko gaztea daukagu.

🚶 **Zergatik hori?**

Ez dakit. Ona izango litzateke jende helduak ere parte hartzea baina iruditzen zait gaur egun herritarrek duten kontzeptua gazteen Tanborradarena dela.

🚶 **Gazteak dauden tokian, parranda.**

Badakit batzuek uste dutela Tanborrada mozkortzera ateratzen den kuadrila batek antolatutako zerbait dela. Ondo pasatzen dugu baina herritarrek ere gustura hartzen gaituzte. Jendeari gustatu egiten zaio Tanborrada ikusi eta entzutea, aurpegian nabaritzen da.

🚶 **Zenbat daramazu antolatzaile?**

Dezente. Partehartzaile bezala hasi

nintzen. Gero desagertu egin zen eta pena eman zidan. Berreskuratzeko asmoz hasi nintzen lanean duela 5 urte inguru.

«Entsaiotara etortzea oso garrantzitsua da»

🚶 **Zer da erakartzen zaituena?**

Herriak herriarentzat antolatzen duen festa da. Udalak diruz lagundu arren, lanak gure artean egiten ditugu. Nik uste hori ona dela ze, berez Elgoibar nahiko herri zozoa da eta kosta egiten zaigu gauzak antolatzea eta parte hartzea.

🚶 **Garai batean aldarrikapenak egiteko ere erabiltzen zen.**

Bai, guk ere izan genuen aukera, iritsi zitzaigun proposamen bat baina ezetz erabaki zen. Gauzak aldarrikatzeko foroa

ez da Tanborrada. Tanborrada festa bat da, herritarrik gehienak elkartu behar dituen, eta aldarrikapenak oreka galtzea suposa dezake.

🚶 **Musika Bandarik gabe, ezin imajinatu Tanborradarik.**

Asko janzten du, bai, eta solemnitatea ematen dio. Mautixarekin egitearen alde azaldu direnak egon dira, baina txarangarekin alaitasun gehiago bai, baina desmadre handiagoa egongo litzateke. Bandak seriotasuna ematen dio Tanborradari eta soinu hobea da.

🚶 **Beti Elgoibar joko duzue aurten ere, noski.**

Bai, Txomin Mujikak idatzi zuen propio Tanborradan jotzeko.

🚶 **Eta noizko letra, Sarriegiren mar-txak bezala?**

Hori Mujikari galdetu beharko zaiol! Polita izango zen guk tanborra jotzen dugun bitartean herritarrek abestea.

🚶 **Lehen entsaioa noiz, Andoitz?**

Osteguna, hilak 28, 21:30ean Merkatu Plaza goian. Ea jendea etortzen den. Askok uste du badakiela tanborra jotzen eta, Katxok esan bezala, "munduko futbolista onenak ere egunero entrenatzen du!".

LIBURUTEGIKO IDAZLAN ETA MARRAZKI LEHIAKETA 388 lan aurkeztu dira sariketara



Elgoibarko Udal Liburutegiak antolatzen duen XI. Idazlan eta Marrazki Lehiaketaren sari banaketa egin zen hilaren 18an. Marrazki Lehiaketan Julen Leo, Nerea Ainsa, Inaki Gabilondo eta Andrea Ibarluzea izan dira irabazleak eta Garazi Ayesta eta Ane

Urain Idazlan Lehiaketan. Sari bereziak Ekaitz Atxa, Migel Montes, Oscar Palomo, Ane Zuñiga eta Roke Ortuoste jaso dituzte. Joseba Etxeberria futbolariaren eskutik jaso zituzten sariak. Guztira 388 lan aurkeztu dira, 285 marrazki eta 103 idazlan. Lanok Liburutegian jarriko dira ikusgai.

"Rwanda 10 urte geroago"

Inma Mugerza lankide boluntario elgoibartarrak eskainiko duen hitzaldia-
ren izenburua da. Irailean Rwandan bi-
zitako esperientziak berba egingo du
apirilaren 27an, eguaztenean,
20:00etan Parrokiako aretoan (Trenbide
kalea). 1994ko gertaeren ondoren, Afri-
kako herrialde honek arazo larriei egin
behar die aurre. Rwandako biztanlego-
aren %60a txirotasun mailaren azpitik
bizi da eta gobemu diktadoreak, po-
pulazioaren zati txiki bati besterik ez dio
mesede egiten. Hitzaldiak beraien erre-
alitate hurbilduko gaitu.



ARMERIA ESKOLA

Goi Mailako L.H.ko Berariatzko Institutoa
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

2005/2006 IKASTURTEA

HEZKUNTZA ESKAINTZA

"A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)

**BATXILERGOA
ERDI MAILAKO
ZIKLOAK
GOI MAILAKO
ZIKLOAK**

TEKNOLOGIKOA
MEKANIZAZIOA
EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA
MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA
TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK
ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK

IZENA EMATEKO:

**Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak,
apirilaren 25etik maiatzaren 6ra (biak barne).
Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak,
ekainaren 1etik 8ra (biak barne).**



JOSE GURRUTXAGA ANTIXINTXIKARIA

«Atletismoa nire salbazioa izan da»



Domeka honetan, hilaren 24an, ospatuko da Elgoibar Ikastolak antolatutako XII. Jose Gurrutxaga Krosa. Kirolzale guztientzako eredu da 83 urteko gizon hau. Helduen mailan hainbat Munduko Txapelketetan parte hartu du eta 80 urtez gorako egungo Espainiako Txapelguna da 100 eta 200 metrotan.

👉 **Zure izena daraman lasterketa. Ohore bat izango da, ezta?**

Izugari pozgarria da, are gehiago norbera bizi den artean jasotzen den ohorea bada. Haur Krosari nire izena jarri behar ziotela esan zidatenean, ez naban sinisten. Ez dakit Ikastola nola eskertu. Egun polita izaten da.

👉 **Zure ilobaren batek parte hartzen al du?**

Bai, Mikelek. 8 urte bakarrik izan arren, oso abila da kiroletan. Aintxintxika, esku pilotan, futbolian, igerian... denean moldatzen da ondo. Ez dakit nondik joko duen, baina ez dago geldirik geratzeko.

👉 **Ematen al diozu aholkurik?**

Oraindik gazteegia da aholkuak entzuteko eta ez da komeni oso gainera egoterik ere. Poliki-poliki zer edo zer esaten diot, baina bere erara ibili dadila. Saltaka ibiltzea ondo etorriko zaio edozein kiroletarako. Atletismoarekin, gainera, sakrifizioa zer den ikasten da eta horrek asko balio du bizitzarako.

👉 **Ari al zara txapelketaren baterako entrenatzen?**

Aurten kale. lazko udan Espainiako Txapelketan parte hartu naban azkenean. 100 eta 200 metrotako lasterketak irabazi nituen Sevillan, baina harrezkerro ez dut zorte gehiegirik izan. Hainbat arazo tarteko 5 hilabetez egon naiz geldirik eta berriz hasi nintzenean ez nintzen behar bezala errekuaratu.

Kardiologoarekin frogak egin ostean, balbula bat tratatuta neukala eta operatu beharko nindutela esan zidaten.

👉 **Aurten geldirik beraz...**

Bai. Gero ikusi egin beharko da operazioaren ostean nola gauden. Medikuek ez dela hil ala biziko operazioa dio, eta lehen baino hobeto gertatuko naizela. Pena bat da, Munduko Txapelketa Donostian ospatuko baita abuztuan eta parte hartzeko ilusioa neukan. 100 metrotan 17 segundutik jaisteko asmoa nuen, baina...

👉 **Dietarik jarraitzen al duzu?**

Keba, dagoena jan eta aurrera! Ez naiz txikiteroa, ez erretzailea izan, horietxek kendu eta kito! Errekuperazio oso bizkorra izan dudala izan da nire abantaila. Atsedean hartu eta laster jartzen nintzen sasoko.

👉 **Zein da, bada, zure sekretua?**

Sekretua baino zorzea da. Bestalde, asko zor diot atletismoari, nire salbazioa izan baita. Emaztea gaixorik eduki dut azken urteetan eta etxeko egoera gogorra eramaten lagundu dit. Pixka bat izerditu eta burua despejatu egiten da. Korrika hasi nintzen lehen urteetan zorotzat jotzen ninduten eta zerbait pasatzeko beldurrik ez al nuen galdezten zidaten. Niri zerbait pasa? erantzuten nien, pasatzekotan zuei gerta dakizue zerbait. Kirolaren onuren inguruko ezjakintasunak sortzen ditu usteok. Orain, aldiz, mundu guztia dabil korrika.

«Sakrifizioa zer den erakusten du kirolak eta bizitzarako balio du»

BERAKO MENDI MARATOI ERDIA

Bost herritarrek parte hartu dute Berako mendi maratoi erdian



Asier Arrieta (ezkerrean) Berako kaleetan.

Munduko Mendi Lasterketa Zirkuitoaren barruan dagoen Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia maiatzaren 29an ospatuko da. Elgoibarren bat baino gehiago ari da froga gogor hau prestatzen. Joan zen asteburuan esaterako, 5 herritarrek parte hartu zuten Berako mendi maratoi erdian. Beran hasi eta bukatzen zen lasterketa, baina 21 kilometroko ibilbidean Manttale (573 m.) eta Larrun (905 m.) mendiak igo

behar zituzten, igoera eta jaitsiera guztien artean 2.000 m-tako tartea metatzen zelarik. David Conde izan zen lehen elgoibartarra, 1:58:26 denborarekin. 12. postuan helmugaratu zen Xabier Etxegarai irabazlearengandik 14 minutura. Ion Revert 18. postuan sailkatu zen (2:03:28). Xabier Bergaretxek 2:05:28 denbora egin zuen, 2:13:53 Asier Arrietak eta 2:24:30 Andoitz Agirregomezkortak. Ia 240 korrikalarik hartu zuten parte, tartean 4 emakumezko.

Sorospena eta Lehen Laguntzen ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak "Sorospena eta Lehen Laguntzak" izeneko ikastaroa antolatu du Gurutze Gorriaren laguntzarekin. Uztailaren 1etik 22ra bitartean burutuko da, Olaizaga Kiroldegian, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Ikastaroak 80 orduko iraupena izango du eta gainditzen dutenek sorosle bezala lan egin ahal izango dute. Derrigorrezkoa da 18 urte beteak izatea eta bi proba fisiko gainditzea: urpean 20 metro igeri egitea eta ur azalean 1.000 metro. Prezioa 290 eurokoa izango da, eta parte hartzeko asmoa duten guztiek Olaizaga Kiroldegian eman beharko dute izena.



[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 2 - A. Ondarroa 1 (3. maila)
 Elgoibar 1 - Hemani 1 (1. erreg.)
 San Ignacio 2 - Elgoibar 2 (Jub.)
 Ilinxta 1 - Elgoibar 4 (Kad.)
 Elgoibar 4 - Anaitasuna 1 (Inf. A)
 Elgoibar 4 - Beasain 1 (Inf. B)
 Elgoibar 3 - Urola 3 (Aleb.)
 Elgoibar 1 - Urki 0 (Neskak)
 Almen 4 - Elgoibar 2 (Neskak F-8)

ARETO FUTBOLA

Ceramicas Nogales 4 - Kenci Elg. 4 (Nazional B)
 Amara 4 - Lanbroa 4 (1. maila)

PILOTA

Debabareneko Txapelketa

Lagunak A 22 - Olalde 12 (Nag)
 Lagunak B 21 - Aretxabaleta 22 (Nag)
 Lagunak 22 - Eibar 5 (Jub.)
 Lagunak 22 - Eibar 15 (Kad.)
 Euskal Jolas 22 - Lagunak 14 (Kad.)

BOLOAK

Elgetako Txapelketa

1. Jose Manuel Perez (Asola Berri) 5 txirilo
 2. Julen Ibarluzea (San Migel) 4 txirilo
 3. Jon Ibarluzea (San Migel) 4 txirilo

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 23
 9:30 Elgoibar - Antzuola (Neskak F-8)
 11:00 Elgoibar - Eibar (Inf.)
 12:30 Elgoibar - San patricio (Kad.)
 18:00 Elgoibar - S. Herrera (Jub.)

ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

Debarroko Txapelketa

Martitzena, 26
 20:00 Lagunak B - Arrasate (Nag.)

ARETO FUTBOLA, Kiroldegian

Barixakua, 22
 22:00 Lanbroa - Inter C. (1. maila)
 Zapatua, 23
 16:00 Kenci Elg. - Piti Pascual (Nazional B)

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Zarautzeko enpresak **garbiketarako langilea** behar du. Erref. 162005003404
- Zarautzeko enpresak **eskola-jantokiko begiralea** behar du. Erref. 162005003572
- Zumaiaiko enpresak **igeltseroa** behar du. Erref. 162005003710
- Arrasateko enpresak **ofimatika irakaslea** behar du. Erref. 162005003141
- Arrasateko enpresak **aholkularia** behar du. Erref. 162005003706
- Gipuzkoako supermerkatuetarako **bost harakin** behar dira. Erref. 162005003676
- Gipuzkoako enpresak **obrarako arduraduna** behar du. Erref. 162005003640
- Azkoitiko enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162005003597
- Arrasateko enpresak **elektronika eta informatika osagaien saltzailea** behar du. Erref. 162005003477
- Debako enpresak **sukaldaria** behar du. Erref. 162005003259
- Azpeitiko enpresak **arkitekto teknikoa** behar du. Erref. 162005003360
- Azpeitiko enpresak **enkofratzailea** behar du. Erref. 162005003371
- Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162005001933
- Gipuzkoako enpresak **klinikako laguntzailea** behar du. Erref. 162005003455

Hautagai moduan sartzeari eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

[LANA]

ESKAERA

- † Bi neska gazte udan umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 43 35 57**
- † 17 urteko bi neska haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 88 30 97**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, kamarera edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **646 23 51 95**
- † Soldadorea lanerako prest. Urtebeteko esperientzia. ☎ **943 53 17 45 (19:00-23:00)**
- † Emakumea gaixoak zaintzeko prest. Gauetz edo goizez. Esperientziarekin. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**
- † Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ **679 23 19 50**
- † Zaintzaileak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko, erresidenzian edo etxe partikularretan. 10 urteko esperientzia eta informak. ☎ **685 729 790**
- † Mutil gaztea lanerako prest: garbiketa lanak, sukaldean, igeltseritza... ☎ **646 23 51 95 (Juan Carlos)**

ESKAINITZA

- † Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun solteak. ☎ **687 530 128 (19:00etatik aurrera)**
- † Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaintzeko. ☎ **607 560 355**
- † Abuzturako emakumea behar da emakume nagusi bat zaintzeko. Eskarmentua eta euskara ulertzea eskatzen da. ☎ **943 74 21 53 (Ramon. 20:00-22:00)**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Basarten. 75m² Dena kanpora. 2 logela armairuekin, 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. ☎ **652 70 99 15**
- † Pisia salgai Artexen (Iñiguez de Karkizano). Berritua, altzariekin, dena kanpora, ganbararekin. ☎ **627 94 12 61**
- † Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena berritua. ☎ **943 74 18 83 (Ignacio)**
- † Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. ☎ **677 780 680**
- † Etxea salgai Lekeition. 80m². Erdialdean, dena kanpora. Bizitzera sartzeko prest. 3 logela, 2. pisua, 2 sarrera (1 independentea). ☎ **645 73 00 82**
- † Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- † Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta, txokoa. ☎ **615 77 99 20**
- † Buhardilla salgai San Frantzisko kalean. ☎ **639 01 77 52**
- † Etxea salgai Mendaron. Herriko Enparantzan. Sukaldea, egongela, 2 komun, 3 logela, trasteroa. ☎ **676 81 46 97**
- † Etxea salgai Elgoibarren. Amueblatuta, berritua, igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. ☎ **645 73 20 90**

ALOKAIRUA

- † Pisia alokatzen da Elgoibarren. ☎ **943 74 08 64**
- † Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **690 70 11 18**
- † Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **943 75 15 81**
- † Logelak alokatzen dira. ☎ **615 00 83 46**
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ **964 49 10 22**
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ **964 49 10 22**
- † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz), Bateles hondartza ondoan. Jantzita. Maiatza, iraila, urria eta hurrengoak. ☎ **680 44 26 68**
- † Apartamentua alokatzen dut Saloun, Novelty eraikuntzan. Jantzita, aire egokitua, igerilekua, garajea, terraza. Harrera zerbitzua 24 ordu. ☎ **629 98 98 99**

[LOKALAK]

- † Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ **669 03 89 57**

[GARAJEAK]

- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m². ☎ **646 50 28 66 (arratsaldez)**
- † Garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 07 26 (21:00-22:00)**
- † Garaje itxia alokatzen da. Berritua. Sarrera Plaza Txikitik. ☎ **943 74 02 68**
- † Garaje txikia, marraduna alokatzen da Pedro Muguruzan. Merke. ☎ **943 74 01 13**

[PARTIKULARRAK]

- † LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ **639 43 35 57**
- † Ingeles irakaslea behar da. First maila. ☎ **636 44 55 43**

[SALEROSKETAK]

- † Haurrentzako kapotadun kotxea salgai. Silver Cross markakoa. Berritua. 250 euro. ☎ **943 74 01 94**
- † Seat Cordoba Sport 1.900 Tdi salgai. 100 zaldi. Urte bat. ☎ **943 03 02 70**
- † Andregai soinekoa eta konplementoak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ **943 08 00 81/615 72 64 30**
- † Ordenagailurako 17" pantaila salgai. Mitsubishi Diamond Scan. Berritua bezazla, 4 urte, merke. ☎ **658 62 99 47**
- † Laminazko somiera salgai. 90zm. ☎ **661 22 51 49**
- † Hispano-arabe arrazako zaldia salgai. Hezitua, pasiaran ibiltzeko egokia. ☎ **669 03 89 57**
- † Karro-kanping "comanche" salgai. Ekonomikoa. ☎ **615 72 64 30/943 08 00 81**
- † Bikientzako kotxe silla salgai. INGLE-SINA markakoa. (Silla, Grupo O, sakuak, burbujak, etab.) ☎ **636 129 543**

[BESTELAKOAK]

- † Katu siamesa aurkitu dugu San Pedroko etxeetan. Marroi iluna, lepo zuria. ☎ **661 03 00 87**
- † Urrezko eraztun bat galdu nuen Ikastolako saskibaloi kantuan zapa-tuan, joko eskolarretan. ☎ **943 74 42 06 (Mari Kamen)**
- † Asteazken santu egunean diru kopuru bat aurkitu nuen kalean. ☎ **943 74 32 70**

[ZORIONAK]



† Zorionak haurtzaindegiko bihurtu! Urtebete egin duzu dagoeneko! Muxu handi bat ikastolako laguntza partez.



† Zorionak **Martin**, hilaren 19an urte bete egin zenuelako. Gurasoen eta Jabierren partez.



† Zorionak **Paula** zure hirugarren urtebetetzean. Gurasoen eta familiako partez.



† Zorionak "**Gallegoari**" familiako partez apirilaren 20an urteak bete zituelako.



† Zorionak **Eideni** apirilaren 20an 3 urte egin dituzulako. Familiaren partez muxu handi bat.



† Zorionak **Issbel** apirilaren 18an 8 urte bete zenuelako. Guraso, aitona-amonak eta osaba-izeben partez.



† Zorionak **Nagore** gaur, apirilak 22, 6 urte egin dituzulako. Familiako eta bereziki, Ainhoaren partez.



† Zorionak **Mikel** hilaren 24an 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako partez.



† Zorionak **Iker** apirilaren 17an 8 urte egin zenuelako. Markel eta familiako partez.



† Zorionak **Unax** hilaren 21ean urtebete egin zenuelako. Etxeko eta bereziki lehengusina Aneren partez.



† Zorionak **Amaia Iriondo** apirilaren 28an 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat eta zorionak!



† Zorionak **Haritz** etxeko bihurtari, hilaren 23an 10 urte egingo dituelako. Aupa Athletic! Etxeko partez.



† Zorionak **Uraitz** apirilaren 24an 4 urte beteko dituzulako. Familiako eta bereziki, Garazi arreba partez.




† Zorionak **Iraide Rovira** apirilaren 24an 8 urte beteko dituzulako. Familiako partez.



† Zorionak **Naroa Lopez** apirilaren 20an 2 urte egin zenuelako. Aiton-amonak, osaba-izeba eta lehengusuen partez.



† Zorionak gure txapeldun **Ion** hilaren 25an 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat eta ondo pasa eguna, bereziki Maitane eta Janireren partez.



† Zorionak **Itigo** hilaren 24an 5 urte egingo dituzulako. Aitaitza, amama, guraso eta Maixusen partez.



† Zorionak **Markel** apirilaren 20an 5 urte egin zenuelako. Arreba Olaia, lehengusu Egoitz, Aitzol eta Aimarren partez.



† Hain politak zineten txikitan eta orain haunditzen haunditzen... zuekin asko gogoratzen diren partez. Zorionak 20an urteak bete zenuelako!



† Apirilaren 26an noren eguna ote da? kasualitatea? Hemen bi behintzat egun berekoak. Zorionak **Enara** eta **June!** Oso ondo pasa zuen eguna eta muxu handi bana familiako guztien partez. Lasai, opariak ez ditugu erdibitu, bakoitzari berea!!!



[OKINDEGIA]



24 igandea IBARRENA



[FARMAZIAK]

22	EGUNEZ Zabaleta	GAUEZ Zabaleta	KANPOKO FARMAZIAK IBÁÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
23	Etxeberria (Erosario)	Etxeberria	
24	Etxeberria (Erosario)	Etxeberria	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
25	Ibañez	Ibañez	
26	Bidasolo	Bidasolo	
27	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
28	Fernandez	Fernandez	
29	Yudego	Yudego	



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Larrialdiak	943 46 11 11	Kiroldegia	943 74 44 15
Planning-a	943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Liburutegia	943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Musika Eskola	943 74 21 45
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Mintxeta	943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Parrokia	943 74 08 42
Odol Emaileak	943 74 39 36	Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14		
Mendaroko Udala	943 03 32 82	IKASTETXEAK	
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	Haur Eskola	943 74 21 41
Udaletxea	943 74 10 50	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udalizaingoa	943 74 13 94	Herri Eskola	943 74 08 79
Debemen	943 74 40 67	LM.H.	943 74 41 32
		Institutua	
GARRAIOAK		Arreiture	943 74 80 19
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
PESA (Eibar)	902 10 12 10	Ikastola	943 74 44 41
Taxi geltokia	943 74 08 98	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
Bizkaibus	902 222 265		



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburua eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiko. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[22 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.



SINOPSISIAK

«El Escondite»



[24 DOMEKIA]

11:00 XII. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA
Plaza Handian
Partehartzaileak: Elgoibar eta Mendaroko 490 haur

16:30 "HANSEL, GRETEL ETA TXOKOLATEZKO ETXETXOA" UMEENTZAKO OPERA

Taldea: Getxoko Opera Tailerra
Hümperdinck-en "Hansel und Gretel" operan oinarritua
2 urteik gorakoentzat
Herriko Antzokian

[27 EGUAZTENA]

20:00 HITZALDIA
Gaia: "Rwanda hamar urte geroago"
Hizlaria: Inma Mugerza lankide boluntario elgoibartarra
Parrokiako aretoan (Trenbide kalea)
Antolatzailea: Parrokiako Misio Taldea

[29 BARIXAKUA]

19:00 GEMMA MONREAL EN MARGO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Maiatzaren 15era arte



ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El Escondite»
22, barixakua: 22:15
23, zapatua: 19:30-22:15
24, domekia: 19:30-22:15
25, astelehena: 22:15
«La casa de las dagas voladoras» (Z.K.)
28, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Maldicion»
22, barixakua: 19:30-22:15
23, zapatua: 17:00-19:30-22:30
24, domekia: 17:00-19:30-22:30
25, astelehena: 19:30-22:15
26, martitzena: 19:30-22:15
27, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Reinas»
22, barixakua: 19:30-22:15
23, zapatua: 17:00-19:30-22:30
24, domekia: 17:00-19:30-22:30
25, astelehena: 19:30-22:15
26, martitzena: 19:30-22:15
27, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Zuzendaria: Steven Soderbergh.
Antzezleak: George Clooney, Brad Pitt, Catherine Zeta-Jones.

Hiru urte pasa dira Danny Ocean (George Clooney) eta bere lapur koadrilak historiako lapurretarik ausart eta mamitsuena burutu zutenetik. Orduko hartan, Terry Benedict (Andy Garcia) enpresari kupidagabeak Las Vegaseko kasinoan zuen kutxa gotorretik azken xentimoraino lapurtu zuten. Ezinezkoa ziruduen segurtasun neurriak gainditzea, baina 160 milioi dolar ostu zituzten. Dirua banatu ostean, taldeko kide bakoitza ahalik eta zarata gutxien ateratzen saiatu da, baina ez da erraza patrikan horrenbeste diru duzunean.

«La casa de las dagas voladoras» (Z.K.)



Zuzendaria: Zhang Yimou.
Antzezleak: Takeshi Kaneshiro, Andy Lau Tak.

Tang dinastia, Txinako argitsuenetakoa, gainbehera dator Kristo Aurreko 859 urtean. Enperadoreak ez du behar adinako gaitasunik eta ustelkeria da nagusi gobernuan. Ondoeza nabarmena da inperio osoan eta protesta gisa matxinatuz osatutako armada dextente sortu dira. Indartsuena eta izenik handiena duena filmeari izenburua ematen dion talde sekretua da. Pobreei emateko aberatsei lapurtzen diete, eta jokaera honi esker jendearen mirespena eta babesa eskuratu dituzte.

Atzera begira



1975. urte inguruko erretratu zahar hau **Jesusa Kortaberriak (Untzon)** laga digu. Argazkia Gure Bide sozidadean aterata dago. Argazkian ageri den lagun koadrila honek Karakatera igoerako apustua egin zuen egun honetan, eta gero denak elkarrekin Gure Bidean bazkaldu zuten. Mendi buelta egin ostean, giro onean pasatu zuten eguna. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak.

Atzean zutik, ezkerretik eskumara: **Santi Bollar (†), Bizente Lazkano (†), Santi Zigorruga (†), Jose Mari Arrillaga eta Eulogio Arizmendi (†).**

Eserita, ezkerretik eskumara: **Pako Arrizabalaga, Jose Inazio Ulazia, Inazio Garate, Jeronimo Bollar, Jesus Agarre (†), Jose Zabala, Antonio Ulazia (†), Justo Aizpiri, Jose Mari Arantzamendi eta Pedro Ezkurra.**

I. URTEURRENA

2004ko apirilaren 24an hil zen

Inés Ciaran Arocena ren

oroimenez urteurreneko meza izango da,

domekan, apirilak 24, eguerdiko 12:30ean Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Sentitzeko modua, izateko modua

Ormazabal Barne Arkitektura, xumea konplexuaren gainetik ulertzen duen minimalismoan oinarritzen da. Estetika garbia eta funtzionaltasuna dira gure lanaren oinarri.

Hiru gune ditugu, Arrasate eta Oñati artean banatuak. Gure jarduera barne-diseinua eta gaur egungo altzariak dira. Gure lantaldeak zure leku eta beharretara egokitutako proiektua egingo dizu.

Ormazabal Barne Arkitekturak 5 sail ditu:
Sukaldeak, Zeramikak, Bainugelak,
Etxea eta Argiztapena.

Ormazabal ARRASATE
Garibai | Tel.: 943 71 19 81

Ormazabal OÑATI
Sta. Marina 4 | Tel.: 943 78 30 58
Apaolaza A-2 | Tel.: 943 78 16 40

Sukaldeak ulertzeko beste modu bat

Sukaldean eguneko ordu asko pasatzen dira.

Altzari asko mekanismo eta korronteen hartuneak ezkutatzeko diseinatuak daude, baina azken itxura, sukaldearen azala hain zuzen, garbia da. Sukalde minimalista aukera dotorea da gero; espazioarekin, zabaltsunarekin gozatzen dutenentzat egokia. Dotorezia eta funtzionaltasuna batzen dituen aukera paregabea.



Osaka sukaldeak. Sukalde handiagoa egiten duten lerro horizontalekin diseinatuak dago, eta argitasunaren eta iluntasunaren arteko nahaste ederrarekin osatua, altzairuaren ukitura duela. Modaz gain sekula gelditzen ez den estiloa.

Gaur-gaurko zeramika

Sukalde eta bainugelak janzteko zorrotasuna behar da aukeratzeko orduan. Segituan ikusten den gainazala da; hortaz, garrantzitsua da itxura zaintzea; era berean, iraua dezala eskatu behar zaio eta erraz garbitu ahal izatea.

Mosaikoa gaur-gaurko estaldura da, denboraz gaindiko bermea eta aberastasuna eskaintzen du hormetan. Koloreen eta itxuren arteko nahasketaren eraginez gelak bizitza eta estilo propioa hartzen du.

Mugimendua mosaikoren jatorrian dago: koloreen tonuen arteko ezberdintasunak mugimendua duten irteenguek sortzen dituzte.

Etxea: dotorezia neurria hartzean dagoenean

Egongela da etxean gehien ikusten den gunea, baita denbora luzean pasatzen dugun tokia ere. Bertan egiten ditugun jarduerak direla eta (irakurri, telebista ikusi, atsedean hartu, hitz egin) egongela da altzariz janzteko eta apaintzeko tokirik zailena.



Apal ireki eta lakatuarekin osatutako egitura. Beirazko ate irristailua, ate handiak, tiradera eta apal zabalak, tamaina trinkoak eta lerro garbiak egiturak osatzeko orduan.

Sofa eta besaulkia aukeratzeko

Itxurarekin eta kalitatearekin batera beste ezaugarri bat ere kontuan hartu behar dugu aukeraketa egiterakoan: egongelan daukagun tokia eta antolamendua. Jarduerak erabakiko du altzariaren egitura eta tapizatuaren osagaia.



Era egokian txukuntzea

Armairu on batek metalezko oinarria duen egitura izan behar du, eta horrek altzariaren kalitatea bermatuko du. Armairuek aurrealde leunak dituzte nagusiki, eta era askotako akaberak azaltzen dituzte, beiradunak bereziki.



Bainugelak: funtzionaltasuna, ergonomia eta abangoardia

Bainugelaren plangintza egiterakoan komun-ontziak erabakigarriak dira. Batzuk zintzilikaturik, beste batzuk oina dutenak, badaude horman sartutakoak eta komun txikiengat bereziki diseinatuak.



Moduludun altzariak: aldakortasuna, moldatzeko gaitasuna eta arintasuna. Bainugelako altzariak izango dituzten ezaugarriak dira.

Argitu baino zerbait gehiago

Argiztapena hein batean ukitu ezin den zerbait da, baita gela erabat alda dezakeen zerbait ere. Barneko gelak erosoak izan daitezten oso garrantzitsua da argi puntuak egoki jartzea.

Diseinuko lanparak dira, argia emateaz gain goxotasunez betetzen dituzte hutsik dauden guneak, baita itzalita daudenean ere.



Offfiza: mahai gainean zintzilikatutako lanpara jartzen da argitasun lausoa eman diezaion.

Egongela: mahai gaineko lanpara.



FOTOKOPIAK opilan

- Fotokopiak z/b
- Koloretako laser fotokopiak
- Enkoadernazioak
- Ploterra
- Planoen digitalizazioa
- Planoen kopiak (handitu eta txikitu)
- Kartelak
- Negatiboen digitalizazioa (argazki zaharrak...)
- CD eta disketeen inprimaketa
- Plastifikazioak
- Eskanerra kolorean DIN A-0 neurriraino



15 URTE
ZUEN ZERBITZURA!

Negatiboen digitalizazioa (argazki zaharrak)



Planoen eta dokumentuen inprimaketa



Ibaitarte kalea, 5
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 35 51
bkopilan@euskalnet.net